

ERRABAL
J | A | Z | Z

RS Faktor Akúfeno

94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabaljazz.com

Errabal (ER-082)
2016
CD



Jazzaren munduan huts barkaezin bakar bat dago, gelditzea alegia. Barkaezina da norbera mugatzea, etsiak hartzea edo, zilegi bekit hala esatea, arraina salduzkat ematea. Jazz sekula ere ez da amaitzen eta jazz egiten osasuntsu jarraitzeko, hemen eta han bilatu behar da beti. Esakune hori erabat barneratua duen belaunaldikoa da Rubén Salvador, nahiz ez duen ahanzten nondik datorren. Kasu honetan, ez da lerro zuzena bi puntu horien (abiapuntua eta betiere berria den helmuga) arteko bide zuzenena, gure jazzmanak estimulatzeko eta musika sortzera, jotzera eta diskoak grabatzera bultzatzen dituen bide bihurtuak baizik.

Bere tronpeta bikain jotzen jakiteaz gain, bereak dira akufeno honetako lan gehienak, eta agerian geratzen da egileak luma zorrotza duela: itsasoz eta lehorrez entzulea Galiziarra eta Euskadira eramaten duten doinuak dira, bopetik hots garaikideagoetara egiten dituztenak. Iturri askotatik edaten du Salvadorrek, eta hari askotatik egiten du tiraka, ez du bere burua mugatuta ikusi nahi, eta horretarako lagun berriak eta aspaldiko ezagunak biltzen ditu ingurura, denak konposizioei forma eta bizia emateko artisautza-lanari emanak, tronpeta jotzailearen doinu gozoak inguratuz eta entzulearen belarriak uzten duen lekuraino eramanez.

Ez hartu akufenoa belarrian fokotutako trauma baten sintoma ezatsegin gisa. Jazz disko batek behar lukeena da Rubén Salvadorren akufenoa: musikaria (eta bere musika) erregistratzeko unean dagoen testuinguruaren erretratu eguneratua da. Historia handia du bizkar gainean, eta norabide bat adierazten du: etorkizuneko hotsen, harmonien eta doinuen lurraldea. Ordura arte, akufeno hau leku egokia da, edo hobe esanda, leku bakarra, Rubén Salvadorren musikan barrena murgiltzeko.

Yahvé M. de la Cavada

Kontu honek A Coruñan harrapatu zuen Rubén Salvador, hiri hartara iritsi baitzen irakasle. BBK Jazz 2012 sarietan Epaimahaiak Euskal Herriko Jazz Disko onenari emandako Sari Berezia Claudio Cifuentesen (Cifu) eskutik jasotzetik iritsi zen. Haren lehendabiziko diskoa saritu zioten, "Starting", R.S. Faktorren euskal adarrarekin, Musikenen trebatutako musikari apartekin, grabatua. Bat-batean egokitu zen halako egoeran, arrakastak puztuta Herkulesen lurretan, bertako musikari onenetako batzuek inguraturik –beste umealdi bikaina, planetetako animaliez betea–, eta olagarroa edo lanbroa edo haize-laster gaiztoaren bat han, lanbrotan eta olagarro haiekin, grabatu beharreko gaiak xuxurlatzen hasi zitzaizkion: alegia, RS Atlantic Faktor. Beraz, hiru saiotan grabatu zen AKUFENO: bi saio Atlantiko adarreko taldeekin, eta saio bat euskal adarrarekin. Egilearen berriazko bi omenaldi ditu: bata aitaren Granadako auzo milurtekodunari eskainia, bestea arreba txikiari. Hainbat gairi heltzen dio, eta hainbat generotan murgiltzen da, hainbat ehundura ferekatzen ditu eta forma askorekin jostatzen da txistuari eutsirik, Rubén Salvador egileak inolako zalantzarik gabe helarazi nahi digun zurrumurru etengabeari eutsirik; izan ere, gauzak inolako akatsik egin gabe, gauzak bikain egin zale, da Rubén.

Xabier Romero

ERRABAL
J | A | Z | Z

RS Faktor Akúfeno



94 PK. 20590 SORALUZE
Tel: +34 943 753 016
Mail: errabal@hotsak.com
www.hotsak.com/Errabal
www.errabajazz.com

Errabal (ER-082)
2016
CD

AKÚFENO *gairik gai:*

- **Jokorik Gabe:** Konposizio honi leku egiten dion konpas nahasien nahasketa adierazteko hitz jokoa; itsaso zakarra dagoenetan itsasontzia mugitzen den moduan, patroia ezin lasaiago dagoela, mugitzen da doinua.
- **Akúfeno:** Fenomeno honek hautemandako sentsazioen irudia, berau aurkitzen eta hasten denean, haren garapen aldiari, desagertze uneetan, bere puntu gorenean, eta beti iraungo duela jakinda.
- **Albaicín:** Granadako auzo bereziki erakargarri horri egindako omenaldia, barnean daramadan odol andaluziarrari eta aipatu hiri eder horrekin lotzen nauden lotura familiarrari dei egiten diena.
- **Outubro:** Ilunabar zoragarri bat izan zen gai hau osatzen hasteko eta amaitzeko inspirazio-iturria. Gau hartan bertan, azken aldiz interpretatu eta gero, isiltasunak hartu zuen guztia; isiltasun atsegin hartan oraindik distira bete zuten kolore haiek. Atsedean atsegina, denbora aditzen zen eta bihotzak irribarrea eskaintzen zidan.
- **FjordSong:** Satxa Soriazurekin batean fiordoan eta izokinen herrialdean barrena egindako bidaiari bizi izandako esperientziak eta oroitzapen zoragarriak. Ez dago oroitzapen horiek musikaren bidez gaurkotzeko eta nire bidaidearekin partekatze modu hobirik.
- **Verónica:** Niretzat oso berezia den pertsonari eskainia, harekin bizi eta partekatu baititut era askotako uneak; beti izan du hor, alboan, niri laguntzeko eta aholkuak emateko prest eskarmentuaren ahotsa balitz bezala, ni anaia zaharra naizen arren.
- **Boa Onda:** A Coruña iritsi eta hilabete gutxira ondu nuen gaia, hiria jada ezaguna nuenean eta hiri handi hartan zeuden musikari handien artean mugitzen hasia nintzenean. Zorion aldia bizimodu aldaketagatik.
- **Hércules Tower:** Leku ezin ikusgarriagoa, inspirazio-iturri, sarritan hurbiltzen nintzen hara indar handiko hiru elementu elkartzen direlako: Lurra, Itsaso eta Aire. Elementu horietako bakoitza islatu nahi izan da beste hainbeste musika tresnatan, pianoan, kontrabaxuan eta doinuan (tronpeta eta ahotsa).
- **Good Times in Galicia:** Gai honek agerian uzten ditu, alde batetik ongi jaten eta ongi edaten den herrialde zoragarri hartan, bihotz oneko pertsona asko (izenondoak falta zaizkit, hain ongi hartu baininduten) biltzen dituen herrialde hartan emandako hiru urteetan bizitako une bikainak. Bizi osoan gogoratzeko.

RS ATLANTIC FAKTOR

Miguel Cabana (bateria), Simón García (kontrabaxua), Nani García (pianoa), Iago Mouriño (pianoa, teklatuak), Pablo Añón (saxo Altua), Lucía Souto (ahotsa) eta Rubén Salvador (tronpeta, flugelhorn).

Xabier Ferreiro "Man"-ek, A Coruña-ko Bruar Estudios-en grabatua.

RS BASQUE FAKTOR

Hilario Rodeiro (bateria), Javier Mayor (kontrabaxua), Satxa Soriazu (pianoa), Julen Izarra (saxo tenorea) eta Rubén Salvador (tronpeta, flugelhorn)

Fredi Peláez-ek Beasaingo Pottoko Studio-an grabatua.